

## Arratia Futbol Taldeak nesken kanterea osotu dau lehenengoz bere historian

11. orrialdea

## Danele Sarriugarte Bedian

Hilaren 24an hasiko dau ikasturtea Bediako Irakurle Klubak, oraingoan Danele Sarriugarte idazlea egongo da bertan bere lehenengo nobela *Erraiak* irakurleakaz komentetako. Bediako Irakurle Kluba bi hilerik behin batzean da liburutegian irakurritako libururen bat egileagaz komentetako. Julen Gabiria idazleak dinamizetan ditu saio honeek. 12. orrialdea



## Ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago daborduko

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 214

2014ko urri lehenengoaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Euskerea bultzatzeko jaia Igorren

Hilaren 20an izango da "Inbiu" Eguna.

Herriko alkarteak izango dabe protagonismo berezia aurten Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatutuen dauan jai honetan. Izan be, alkarteen azokea egongo da, eta alkarteak eurak antolatutako ekintzak azokearen inguruan.

Azokan parte hartuko daben alkarteak honeek dira: Euskera Plana bera; Beinke! Merkatarien Euskera Taldea; Igitie, Arratiako Baseritar Agroekologikoen Elkarte; Noka talde feministea; AME, Arratiako Merkatarien Elkarte; Jai Batzordea; Igorre Bizirik; Motxogan Kultur Taldea, Astrapalea Musika Eskolea, Zertu Kultur Elkarte eta AEK.

Azokeari hasikerea emoteko Luis Iruarrizaga Abesbatzak Euskera Planeko abestia abestuko dau. Zekorrek Errugbi Taldeak, Arratia Futbol Taldeak eta Igorreko Esku Pelota Eskoleak ekintzak egingo dabez goizean zehar. Arratia Musika Eskolakoak musikea jotzen ibiliko dira eta Biziartean-ekoak performance jarraia egingo dabe.

Igorreko Euskera Batzordea hurrengo 5 urteetako Euskera Plana prestatzen dabil eta ideak eta ekarpenak jasoko ditue egun honetan. Arrastian, trailer bat moiduten saiatuko dira igorretarrak eta erromeriak eta txokolateak emongo deusie amaierera egunari. 8. eta 9. orrialdeak



Zuztertxu Euskera Planeko maskotea Lasarte parkean.

### ARRATIA

## Askapenakoak ezin izan ziran Aaiunen sartu



Karmele Beobide Zeanurikoa Saharako lurralde okupatuetara joan zan abuztuan Askapenako brigada bategaz hango egoerearen barri jakiteko. Borjadorren egon ziran arren, Marokoko poliziak ez eutsen itxi Aaiunen sartzean. Marokok ez dauala gura munduak jakitea han gertatzen danaren barri dino Beobidek. 6. orrialdea

### ARRATIA

## Casting-a Igorreko Kultur Etxean

Pelikula bat egiteko estra bila dabiz Irune Gurtubai produktorea eta Ben Sharrock zuzendaria. Ez da esperientziarik behar eta pelikulea Arratian grabauko da urrietako atzen aste bietan. Filmak *Pikadero* dauka izena, drama-komedia bat da eta euskeraz izango da. Produktorea Igorren bizi da, baina Eskozian ikasi eban zine inguruko master bat eta han ezetu eban *Pikadero* filmaren zuzendaria. Gurtubai eta Sharrock-en lanik ezagunena *The Zealot* filma da. Honek Lekeitioko Zine Bilerako 2012ko saria jaso eban. 12. orrialdea

### ARTEA

## MerkArtea

Hilaren 20an, XXI. MerkaArtea, Euskal Elikadura eta Artisautzearen Azokea egingo dabe Artean. Berrogeta hamar erakusketari inguru izango dira bertan, Euskal Herriko sei lurraldetatik etorrita. Kalidade handiko ogia, gaztaia, frutea eta landutako egurra eta harria erosi ahal izango dira bertan.

Arrastian, Aikok, Oreka TX-k eta Luhartz taldeak ipiniko dabe musikea jentek jantzan egun daian. 5. orrialdea

IKASTURTE BARRIAGAZ BATERA...

Olaetxe  
OPTIKA ZENTRUA  
94 657 7003  
2 X1  
KRISTALETAN  
10 urterarteko umeentzat

LAN BERTIKALAK

SOKA®  
T.: 946 036 069  
soka@sokavertikal.com  
sokavertikal.com

**ARRATIA ZURI-BALTZEAN**

**BAUTISTA ETA  
ANDRES BERDUZA  
ZEBERIOKO  
BIZARGINAK (II)**

Esan leiteke Bautista Berduza behar gogorretarako gizona zala. Zirujau moduan medikuari lagunduten eutsan apurtutako hankak lotzean eta seguru asko odola eta haginak be aterako ebazan. 1739 urtean Zeberion egoera ez argian heriotz bat gertatu zanean, zirujauari deitu eutsien heriotzearen kausen gaineko eretxia emoteko. 1763an, lan istripu bat gertatu zan, Santa Kurutze auzuneko zubia eregiten egozala Domingo

de Yragorrik hankea apurtu eban. Herri administrazioak, medikua pagau eban eta beste 120 erreal emon eutsazan zirujauari gaisoa jagoteko. Domingo de Yragorrik 165 erreal jaso ebazan diru-sarrerarik eza konpensetako. Tratamentuak arrakastea euki ebala emoten dau; izan be, urtebete beranduago Domingo barriro agertzen da herriko kontuetan arbolak landatzen mendietan. Bautista Berduzak zepoak eroaten ebazan herriko jaietara mozkorrak bildurtzeko edo hareei armak kentzeako. Mota honetako biaje bakotzeko erreal 2 jasoten ebazan. 1748ko kontuetan, barbarako, zera aitazten da. "A *Baupstista de Berduza por*

*traer y llevar las prisiones a las cofradías*". Beharrezkoa bazan persona bat giltzapetzea mozkorra pasetako, ospitalean gela bat egoan horretarako, "*Esta en la misma Casa ospital la Carcel con Zepo y grillos*". Zeberioko barberuen enplegu-askotasunak, minijob-en bitartez, alderdi gehiago ditu, lur-emoile beharrak be egiten ebezan eta barberuok. "*Que habiendo obtenido dichos oficios de carcelero, ministro, enterrador y ospitalero un solo sugeto...*". Aurreko aitameneko "ministro" edo "aguacil" berbak, barriemoile beharrari egiten deutsie erreferentzia. Administrazioak persona baten preminea eukiten

eban gutunak entregetako, Aste Santuan sermoilaria ekarteko Bilbora mando bategaz bila joanda, edo zapaturu ogiak pisatzeko pisuaren bila joateko. Goiko aipuak erakusten dau barberua aguazila be izan zala, denpora tarte baten behintzat. Behar gogorretarako gure gizonak ateraten eban bizimodua, gitxienez bost lanbide honeekaz: ospitaleazain, barberu edo zirujau, udaltzain edo kartzelazain, lur-emoile eta aguazil. Zeberioko bizarginen adibideak erakusten dau Lanbide Heziketa urriagoa konpensau behar izaten zala beste gaitasun batzukaz, lan merkaduan lehiatzeko. Imajinatu geinke Zeberioko bizarginak gizon

indartsuak zirala. Bestela ezin izango eban herriko jaietan, baserriat mozkorrak bildurtu. Gainera, ezin eban antojurik euki hildakoai lur emon edo gorpuak aztertze. Bautista eta Andres Berduzak seguru asko, gaitasun honeek guztiak izango ebezan, baina hata guzti be, herriko beste barberuren bat edo batzukaz lehiatu behar izango ziran.  
**Jürgen Lange**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Urri lehenengoaren 15etik 21era**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**  
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
**Urri lehenengoaren 22tik 28ra**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**  
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
**Urri lehen. 29tik urri bi. 5era**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.  
**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea**  
94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Trenak**  
Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.  
Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**  
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.  
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.  
Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefona:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpuri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga.  
**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratxe Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendieta eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tirada:** 6.800 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Tenplau



Gaztelaniazko jatorridun berbea izan arren, euskeraz beste esangura bat hartu dau: nasai, bare... Horixe da tenplau (templáue, agoskatuta). Epel berbeak konotazino negatiboak baditu bere, tenplau berbeak ez dauka holangorik. Galtzeako arriskuan dagoalako ekarri dogu atal honetara. Adibidea: Maddi neska gaztea izan arren tenplau-tenplau bota zituan bertsoak Baionako Plazan.

## ERETXIA

### Ama, handia nazenean, "inputatua" izan gura dot



LEIRE ETXAZARRA

Kazetaria

Lagun bat zurtz eginda etorri jata zortzi urteko semeak "inputatua" izan gura daua esan deutsalako. "Inputatua, Leire, ez diputadua, in-pu-ta-tua". Antza danez, etxeko txikiak politikari ustelen *glamourra* ikusi dau telebistan: auto dotoreetan doaz epaitegira, traje dotorea jantzita, etxe handi eta dotoreetan bizi dira...

Atzen datuak dinoenez, Estatu espainiarrean 500 persona baino gehiago dagoz inputatuta politikeagaz lotutako korrupzino edo ustelkeria kasuakatik. Eta 20 bakarrik dagoz kartzelan. Baina, kontuz. Inputatua izatea eta akusatua izatea ez dira gauza bera. Inputatua epailearen aurrean deklaratan geituten dabe, delitu bategaz zerikusia euki daua pentsetan dabelako. Inputatua akusatu bihurtuten da fiskalak akusazino formala egiten dauanean. Hau da, akusazino inputazinoaren hurrengo pausua da (edo ez, fiskalak inputatuaren kontrako akusazino egiteko oinarririk ez daua ebazten badau). Inputatuaren inguruan susmoak dagoz; akusatuaren inguruan, ostera, egintzak.

Halanda be, inputatu edo akusatu izan, danak usain bera daukie: inpunidadearena. Aurrezki kutxetako eta politika munduko personajeak lapurreta handiak egin dabez, diru publikoa neurri barik erabili dabe, eta beti euren edota gitxi batzuen mesederako. Froga asko eta zalantza gitxi dagoz horren inguruan, baina zigor txikia ipinten jakie. Edo zigorrik ez.

Kartzelan sartzean diranak, atoan urtetan dabe barriro kalera, aurretik eukiezan onurak galdu barik. Egun edo aste gitxi batzuen ostean, libre. Eta danak errubakoak dirala esaten dabe, edo, bestela, egindakoa "deskui-

doa" izan zala, gura barik egingakoa. Euren eretxiz, epaileak edozein lelokeriagaitik inputatzen dabe jentea; edozeineri gertatu ahal jako, "deskuido" baten, gura barik.

Bale, ba, ez gaitez hipokritak izan. Ea, nor ez dabe noz edo noz inputatu? Ni neu, adibidez, askotan. Lehenengoa, zazpi urte neukazala; ikastolako andereñoak gelatik urteteko esan eustan, klasean (eta "deskuido" baten, "gura barik") berba larregi egiteagaitik. Hortxe, nire lehenengo "inputazino", "akusazino" eta "epaia": erruduna. Hori bai zala "justizia express", ikastolako andereñoarena. Eta hortxe hasi nintzan inputatu-akusatua izatearen "abantailak" ikusten: lagunak klasean egozan, ariketak egin eta egin, eta ni, pasilloan, ederto barrez!, kolperik jo barik. Lehene-negi esperientzia horregaz, zelan ez jatan ba gustauko okerkeritan ibiltea? Zigorra ez, saria zan pasilloan trankil-trankil egotea!

Baina nire inputazinoaren alde gozoak laster topau eban bere gazia: aste osoko arrasti guztiak aittak baserrian ebagitako bedarrak batuten pasa nebazan. Inputatu-akusatu-errudun izateaz gain, "reinzidentea" nintzalako. Zigorrek atera ninduan bide txarretik. Eta zigorra da, neurrikoa, beti, inpunidadeagaz amaituteko bide bakarra.

Jaume Matas Balear irletako presidente ohia da zigorra hartu eta kartzelan sartu dan atzenetakoa. Epaileak Matasek berak orain 15 urte inauguratuko kartzelan sartu dau. Justizia astiro doa, baina bizitzak ez dau oindino bere ironia puntu berezia galdu. Eskerrak.

**LUMATUTEN****XABIER LAMIKIZ****Oporrak eta irakurketea, a love story?**

**N**ork ez dau udako oporretan libururen bat irakurteko tarte bat topatzen? Sasoi baten, orain dala ez asko, itaun hori erretolika hutsa zan. Bazirudian oporrak eleberriak irakurteko apropos eginda egozala. Idea hori, gainera, ez zan beren burua irakurletzat ebenen gauza bakarrik. Hedatuago egoan. Argitaletxe eta liburudendentzat oporren kontrakoa ziran oporrak, salmentak nabarmen egiten eben gora eta. Baina egungo munduan, estimuluz jositako mende barriko mundu mendebaldar neurotikoa honetan, irakurlea galtzeako bidean dagoan espezie bat da, iberiar katamotza edo kolibri esmeralda legez, eta belaualdi bat barru, agian bi, irakurketea arbasoak bakardadean "papelezko adreilu hareekaz egiten eben gauza ha" moduan izango da

oroitua, nostalgia barik, gainera.

Nire aurrikuspena gehiegikeria hutsa dala pentsauko dau batek baino gehiagok. Ados, gehiegikeria da. Baina ezin ukatu joera geldi ezina dala: geroz eta gitxiago irakurten dogu, guztiok. Galdetu bestela irakaskuntzan behar egiten daben hezitzaileai. Errudunak be emongo deuskuez. Bigarren hezkuntzakoak errua lehen hezkuntzakoai botaten deutsee, unibersidadekoak bigarren hezkuntzakoai, eta guztiak gurasoai. Baina benetako errudunak guztiok gara.

Akaso fikzinoaz eta eleberriaz nabil berbetan, eta ez irakurketaz orokorrean, baina ez dot uste hori danik, edo ez hori bakarrik. Batzuek eleberria, literatura genero legez, aspalditik hilda dagoala eta pixkana eleberriak idazteko eta irakurteko gogoia desagertuz joango dala dinoe. Nork idazten ditu *Chanson de Roland* edo *Cantar de mio Cid* lango egitandi kantak (*cantares de gesta*) XXI. mendean? Bada eleberriari antzerako zerbaist gertatuko jako, dirudianez. Zoritxarrez, joera horren lekuko zuzena naz. Gauza da udako bueltan nire unibersidadeko ikasleai oporretan zer irakurri daben galdetu deusdala eta erantzunak deprimidu egin nauzala, urtero legez.

**ZERTZEAN****JANIRE LOPEZ**

**A**rtean bizirik zan zeure bihotza zu eta bion artean labana batez marraztu zendun arrakala hartan behera bota zendunean.

Arrastoren baten bila nabilen arren orro-aiheak baino ez dira entzuten; Eta badakit bizirik dagoena, lurrina dario eta, taupada bakotxean.

Alkarri esandakoak be, alkarri arpegiratutakoak be, han behean galdu izan balitza gaitzerdi...

Baina oihartzun-boza ikaragarria da han behean eta itzuli egiten jakuz behin eta berriro. Behin Eta berriro.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

**BEGI TXINDORRA**

**A**itor Amaizek bialdutako "Gailurrekin ametsetan" izeneko argazkia Pirinioetako Gaube lakuan aterata dago eta hango eguzkia, haizea eta isiltasuna sentidutea erreza da paisajeari begiratzen deusn umeagaz batera.

Oporretako bizipenak eta sensazioak geugaz konpartidu eta argazki lehiaketan parte hartu gura izan ezkerro, hilen honen 25a baino lehenago bialdu behar dira argazkiok [begitu@topagunea.org](mailto:begitu@topagunea.org) helbidera. Egun horretan zarratuten da bialtzeko epea eta hurrengo egunetan batuko da epaimahaia aurtengo irabazlea aukeratzeko. Urri bigarrenaren lehenengo zenbakian agertuko da argazki sariduna.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika  
Implanteak  
Estetika  
Marina Uriagotia Aldekoa  
Oñativia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zerbaita 100  
R.F.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** **Sasobide**  
Balneario Areatza  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel.: 94 657 54 50

## ARTEA

# Kalidadearen aldeko apustua MerkArtean



MerkArtea.

### Erredakzinoa

Hilaren 20an, XXI. MerkArtea, Euskal Elikadura eta Artisautzearen Azokea egingo dabe Artean. Bertara Euskal Herriko sei lurraldetako ekoizleak joango dira euren produktuak erakutsi eta saltzeako asmoagaz. Berrogeta hamar erakusketari inguru izango dira, kalidade handiko produktuak erakusten. Gure Musikariak, txotxongilo erraldien desfilea be egongo da eguerdian eta arrastian, Aikok, Oreka TX-k eta Luhartz taldeak ipiniko dabe musika jentek jantzen egin daian.

Alberto Etxebarria Arteako alkatearen eretxian, azoka honek ez dau indarrik galdu eta horretarako sekretua kalidadearen alde egitea da. "Ikusten dogu feriak gero eta indar gitxiagotzat dagozala, jente gitxiago ibiltzen dala ferietan, baina gurea mantentzen egin da eta holan jarraitutea da gure helburua. Bidea, nik horixe dala uste dot: kalidadearen alde egitea apustua. MerkArtean espositore gitxi dagoz baina kalidade handikoak" dino alkateak.

Hego Euskal Herriko lurralde guztietatik eta Behe Nafarroa-

tik eta Lapurditik etorriko dira ekoizleak euren produktuak. Iparraldekoak ahate produktuak ekarriko dabez batez be, eta horreez batera, Euskal Herri osotik ekarriko oia, gaztaia eta frutea izaten dira arrakasta handiena daukien produktuak janariari jakokonean. Artisautzeari jakokonean, barriz, egurrezko edo harrizko produktuak, bitxiak eta artilea dira jente gehienaren interesa biltzen dabena.

### Arrastia jantzen Aiko eta Luhartz taldeakaz

Azokea 10:00etatik 14:00etara izango da. Eguerdian, 12:30 aldera, Arratiako jentek egindako Maurizia, Leon eta Fasio irudikatzen dabazan txotxongilo erraldien desfilea izango da.

Azokea amaitutakoan ez da jaia amaituko. Izan be, MerkArtearen egunean, "kontzertu potenteak egoten dira, beti euskereagaz lotuta", alkatearen arabera. Aurtan, Aiko taldekoak etorriko dira jantzen erakustera, gero frontoian Oreka TX taldeak bere ikusizuna eskeiniko dau eta amaituteko, gaubean, erromeria egongo da Luhartz taldeagaz plazan.

## IGORRE

# Alia enpresea hartzekodunen konkursoan

### Erredakzinoa

Igorreko Alia enpresek hartzekodunen konkursoa aurkeztu dau. Dana dala, beharra badago eta beharginak beharrean jarraituten dabe. Hasikera baten behargin bi

kaleratu ebezan baina abuztuan berronartu ditue eta beharrean dagozala jakinarazo deutso BEGITURI bertako behargin batek.

Orain konkurso administratzaileak dauka eskumena enpresek zelan aurrera egingo dauan ebazteko eta administratzaile hori izentautu dago, baina aurrera egiteko planaren barri ez eukien beharginak BEGITU zarratuterakoan. "Ondino ez dakigu ezer, ez dabe planik aurkeztu eta zain gagoz" esan eban Aliasako behargin batek.

## ARRATIA

# Gurutze Gorriak bi laguntzaile eta hiru teknikari kontratauko ditu

### Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak bideratuko dauz kontratazinoak Lanbideren laguntzai esker. Izan be, enplegua berraktibetako tokiko ekintzetarako laguntzen markoan, Lanbidek 83.154 euro bideratuko dauz Mankomunitateak aurkeztutako proiektuetarako, eta, ondorioz, bost langabe kontratau ahal izango dira sei hilabetez. Kontratuok Arratiako Gurutze Gorriak egingo dauz. Laguntzaile eta teknikari honeek, hirugarren adinekoen sailean, gizarteratze sailean, gazteria sailean eta administratzaioan egingo dabe behar.

Lanbideren laguntzea (62.000

euro kontratuak egiteko eta 21.000 ekintzaileak eta autoen-

plegua sustatzeko) PECOren (Es-kualdeko Enplegu Plana) barruan dago sartuta. Plan horren barruan Arratia eta Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Udalak dagoz. Lanbidek eskualderako emongo dauan diru laguntzearen zenbateko osoa 460.000 eurokoa da.



## ARRATIako IBAIERTZETATIK V. MARTXA ZEANURI - BEDIA

IRAILAK 20, zapatua

LUZEERA: 20 Km inguru  
IRAUPENA: 4 ordu  
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik  
9:30 etan.

- Autobusa egongo da Zeanurira joateko.  
- 8:30etan Bediatik herriz herri Zeanurira (Dimatik ere)  
- Amaitzean (14:15ak aldera) Bediatik herriz herri buelta Zeanurira.

Hasiera

Helmuga / Luntxa

Arratiako Udalen  
Mankomunitateak antolatuta



Informazio gehiago 665 725 410 telefonoan

## ARRATIA

**Karmele Beobide: "Marokok ez dau gura inork jakitea Saharako lurralde okupatueta zer gertatzen dan"**

Askapenako brigada batez joan zan Karmele Beobide Zeanurikoa Saharako lurralde okupatueta, hango bizi-baldintzen barri jakiteko. Bojadorren egon ziran, baina Aaiunen ez eutseen sartzean itxi. Ez eurei bakarrik, abuztu honetan, Giza Eskubideen aldeko Frantziako abogadu bat, eta UNICEFeko ordezkaria be, Aaiuneko aireportutik bota egin ebezan.

**Erredakzioa**

Askapenakoak, dana dala, Bojadorren hango jentegaz egon ziran berbetan eta Marokon baina mugatik hur dagoan Guelmin herrian be egon ziran aktibista batzuk berba egiten.

**Ez zinien Aaiunera ailegau. Zer gertatu zan bidean?**

Gu garagamilaren 31n urten ginan Mariletik Marrakesheranata. Askapenako sei kide ginan eta gure helburua lurralde okupatueta joatea zan, hango jentegaz egoteko eta euren bizi-baldintzak ezagutzeko. Zeintzuk diran bizi dituen eskubide zibil eta demokratikoen urraketak, hain zuzen be.

Marrakeshetik, Saharako lurralde okupatueta abiatu ginan, abuztuaren 1ean, autobusez. Brigadako batzuk Smarara joan ziran, beste batzuk Bojadorrera joan ginan.

Egin genduan Marrakesh, Agadir eta Bojador. Eta oso argi geratzen da non hasten diran lurralde okupatuak, ze lehenengo herria baino lehen, autobusean kontrolak dagoz herrietara sartzeako. Polizia sartzean da autobusetan eta kanpotar guztioi eskatzen deuskue pasaportea eta galdetzen deuskue nora goazen, zer egin gura dogun, eta zein dan gure lanbidea. Guk irakasleak ginala esan geuntsen eta jarraitu egin genduan biajea.

**Bojadorren sartzea lortu zenuen orduan.**

Bai. Han geunkazan gure kontaktoak. Bojadorrera heldu, eta saharar baten etxera heldu bezain laster, ordubete be ez zan pasau eta bageunkan polizia etxe aurrean. Eta urtetan ginan bakotxean gure atzetik ibiltzen ziran,

denpora guztian argazkiak ateraten, grabazioak egiten... Argi eta garbi dago okupazio militar eta polizia lurraldean.

Bojadorren egon ginanean, hainbat taldegar kontaktau genduan: Giza eskubideen aldeko eta errekurso naturalen babeserako taldegar, andra taldegar, EmakumeBojadorren prensa taldegar eta errepresinoaren biktimakaz.

Errepresinoaren biktimak historia gogorak kontetan ebezan eta andrak esaten eben errepresinoan be beste era batera egiten dabela marrokiak euren kontra eta bortxaketa erabilten dabela errepresino modu legez.

**Errepresinoak eguneroko bizimodua guztiz baldintzatzen dau, ezta?**

Bai. Beste adibide bat ipiniko dot. Bojadorren arrantza da bizi baliabidea. Guk geuk ikusi genduan kolono marokiarak bakarrik bizi dirala arrantzatik. Portuan egon ginan eta han txalupa pilo dago, baina sahararrak, euren lurraldean egonda be, ezin dabe beharrik egin horretan.

Eurek esaten eben arrantzatik ateratzen dan diru guztia bialtzen dabela Agadirrera eta diru hori erabilten dabela Marokon beste gauza batzuk egiteko. Nabaria da, lurralde okupatueta sartzean, ez dabela egiten ezer azpiegiturak dirala eta. Ez bide bat konpondu, ez ezer.

Portuan gengoza, arazoak izan genduzan. Polizia segika geunkan eta kolonoen semeak harriak hartu ebezan eskuetan. Momentu gogorra izan zan.

Sahararren bizi-baldintzak oso gogorak dira, ez daukie behar egiteko eskubiderik, hezkuntza sistema

publikoa oso txarra da, eta ikasketak egin gura badabez, derrigortuta dagoz pribadura joatera. Osasungintza arloan be arazo handiak daukiez, batez be poliziaren tratu txarren ondorioz ezin dira ospitale publikoetara joan, eta joaten diranean txarto tratetan dabez. Euren herrian baztertuta eta erreprimiduta dagoz eta egoera gogor-gogorra da.

**Eta Marokok ez dau gura munduak horren barri jakitea.**

Han gengoza bitartean, jakin genduan Smaran egoza hiru kideak saiatu ziralda Aaiunen sartzean, lurralde okupatueta uriburuan. Autobusetik jaitsiarazo ebezan, taxi baten sartu arazo eta Agadirrera bialdu ebezan. Gu handik pasau behar ginan Aaiunera joateko eta taxi bat hartu eta harantza abiatu ginan.

**Taxian autobusean baino seguruagoa izango zalakoan?**

Bai, baina Bojadorretik atera ginanean taxian, polizia deika hasi zan eta heldu ginanean Aaiungo hegoaldeko sarrerara, han geunkan polizia pilo bat gure zain. Jeitsi arazo ginduezan taxitik oso era txarrean, motxalak aterateko oihuka... Eta galdektea hasi zan: ea nogaz egon ginan, zer egin genduan... Aaiunera ezin ginala sartu eta prest eukiela taxi bat guretzat Agadirrera (Maroko) joan geintezan.

Guk ez geunkala asmorik Agadirrera joateko esan arren, sartu ginduezan taxi baten eta Agadirrera bialdu ginduezan.

**Denpora luzean egon zinien han?**

Agadir oso uri garestia da eta arazoak izan genduzan hotel bat bilatzeko, baina guk jarraituten genduan Aai-

nera joateko asmoagaz.

Agadirren egon ginan bitartean abogadu batez batu ginan, Sidi Mohamed Talebbuia da abogadu hori. Bera Espainian bizi da momentu honetan eta Extremadurako delegazio batez egoan Agadirren, preso saharar batzuen epaketan egoteko. Beragaz gengoza bitartean, Sidiren anaia, Maley Talebbuia, kanporatua izan zan Aaiunetik, ezelango azalpenik emon barik, eta Mauritaniako mugan agertu zan.

**Agadirretik nora joan zinien? Aaiunen sartzean saiatu zinien barriro?**

Bategaz eta bestegaz berba egin eta gero, Guelminera joatea ebatzi genduan. Guelmin lurralde marokiarrean dagoan herri bat da, baina lurralde okupatueta mugatik gertu dago eta hainbat aktibista bizi dira han.

Autobusez joan ginan eta heldu ginanean, gaueko 22:00etan herriko sarreran poliziak gelditu arazo eban autobusa eta zuzen-zuzen guregana jo eban. Jeitsi arazo ginduezan eta atera ebezan gure gauza guztiak, modu bortitzean. Atzanean autobusa bialdu eben eta gu herri sarreran geratu ginan. Hamabost polizia gitxienez eta gu seiok. Denpora guztian galdeketak egiten, argazkiak ateraten eta grabazioak egiten egon ziran. Esaten euskuen gobernadoreak ez ebalda turistarik gura herrian eta ezin

ginala sartu. Barriro be taxietan sartu eta Agadirrera bueltetako. Guk esaten geuntsen ezetz, eta atzanean enbajadara deitu genduan. Hor eztabaidea egon zan enbajadea, konsuladu eta poliziaren artean, eta atzanean beste polizia bat etorri zan, nagusi bat edo eta gauzea bortitz ipini zan. Momentu baten pentsau egin genduan atxilotu egingo ginduzala.

**Atxilotutakoak sano tratu txarrek jasoten dabez ezta?**

Gugaz Bojadorren egon zan mutiletako batek kontetan eban bere historia gogorra: zelan atxilotu eben orain dala urte bi, jipoitu egin ebela konorte barik itxi arte, eta bere hatzmarka erabili ebela beraren kontrako salaketa bat egituratzeko. Ba urri lehenengoaren 4an, kaletik joiala poliziak geratu eban, atxilotuta eroan eta komisaldegian egoala jipoitu eben. Bost ordu egon zan atxilotuta eta urtendakoan ospitalera joan behar izan zan.

**Orain zer egingo dozue?**

Bigarrenez bota ginduzenean, oraingoan Marokoko lurraldetik, Agadirreko konsuladara joan ginan keja bat ipinten. Atzenengo momentura arte segika euki dogu polizia, argazkiak ateraten, gengoza hoteletara joaten eta hoteletako jenteari gutaz itaunak egiten... Abioia hartzeako gengoza nean be, gauzak begiratu, atera arazo, katxeok egin... presinoa handia izan da.

Bigarren brigadeak be ez dau lortu Aaiunera sartzea. Orain gure asmoa da han bizi dan egoeraren barri emotea. Ez dakigu berbaldiak emongo doguzan ala zer, baina horren barri emoteko asmoa daukagu.



Karmele Beobide.

**Arratiako AEK**

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordutegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1, 2, 3, eta 4)
- Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

Agirre lehendakaria 4, Igorre

94 631 56 57 [arratia@aek.org](mailto:arratia@aek.org)

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

30 urtean  
50.000 lagunek  
ikasi dute jadanik  
euskara gure 100  
euskaltegietan

**eman izena**

## ARRATIA



Jose Arreseren familiakoak eta lagunak.

## Jose Arreseri omenaldia Gorbeiko aterpean

### Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 6an, Cementos Lemonako enpresakoak omenaldia egin eutsien Jose Arreseri Gorbeiko aterpean, bere heriotzearen 50 urtegarrenean. Aterpe honen bultzatzailea izan zan Arrese, Cementos Lemona eta bertako beste behargin batzuek batera. Jose Arrese 1.954ko urri lehenengoaren 6an hil zan bihotzekoak jota, 49 urtegar. Hil zanean aterpea inauguratu barik egoan, baina seme-alabakaz joan zan hil aurretik bertara astegoiaren bat pasetan.

Omenaldian, familiaz gainera, Cementos Lemonako oraingo eta lehengo zuzendariak egon ziran, baita beharrez dagozan beharginak eta erretiroa hartu dabena. Jose Arrese zanaren familiakoak,

40 nagusi eta ume inguru, bertan geratu ziran astegoiaren pasan.

### Behargina eta mendizalea

Hamalau urtegar hasi zan Cementosen beharrez Jose Arrese. Gizon langilea zan. Cementos Lemonako etxean bizi zan, fabrika ondoan, eta ordu asko egiten ebazala fabrikaren beharrez dinoe haren seme-alabak. "Jose Arrese ezagutzen ebenak badakie gizon behargina zala, ona, eta edozeineri laguntako prest egoala beti. Oso maitatua izan zan. Futbola, (arbitroa be izan zan), mendia eta peskan joatea asko gustetan jakon. Baina gehien maite ebana Gorbeia zan" dino Leire Arrese lobak.

Jose Arresek 4 seme-alaba euki ebazan, 10 loba daukaz eta 16 birloba.

## ZEANURI

## Xorokilgo harrobiaren ustiapenaren gaineko herri konsultea eskatuko dabe

### Erredakzinoa

Arratia Bizirik sinadurak biltzean dabil Zeanuriko Udalarri herri konsultea eskatuteko Xorokil harrobiaren ustiapenaren inguruan. Herri konsultea egiteko, herritarren % 20ren sinadurak behar dira eta gero Udal Batzari onartu behar da proposamena. Sinadurak hilaren hirugarren astean udaletxean aurkeztu gura ditue ekimenaren bultzatzaileen berbetan.

Erreferenduma zemendiaren 16an egitea eskatuten dabe Arratia Bizirik-ekoak. Udalarri konsultea egitea onartuten badau, informazioa emoteko jardunaldi batzuk antolatuko dabez konsultaren bultzatzaileak.

Bagilan, Zeanuriko EH Bildu udal taldeak alegazioak aurkeztu ebazan udalbatzan, baina oraindino ez dabe erantzunik jaso.

Garagarrilaren 6an ibilaldi gidatua egin eben bertara hainbat arratiarrek.

### Xorokilen gaineko bideoa eskegi dabe Youtuben

Xorokil Bizirik izeneko bideoa egin eta Youtuben ipini eben Andra Mari jaien inguruan. Han, harrobia ustiatzearen kontrako arrazoiak adierazoten dira.

Bideoa helbide honetan ikusi daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=YVa73WY-wBw>

## ARRATIA

## Zeanuritik Bediara martxea



Igazko martxea Zulaibar parean.

### Erredakzinoa

Mobikortasun Iraunkorraren Europako Astearen barruan, Arratiako Udalen Mankomunidadeak Arratiako Ibaiertzetatik V. Martxea antolatu dau. Martxa honek bailara osoa oinez zeharkatzeko aukerea emoten dau. Zeanuritik Bediara 20 km. egingo ditue ibiltariak bailarari izena emoten deutsan Arratia ibaiaren baztarretatik. Horretarako hilaren 20an batuko dira Zeanuriko plazan 09:30ean.

Martxeak herriak batzean dituen oinezko bideak ezagutzeko aukerea emoten dau eta urtean zehar be erabili daitezke bide honek herri batetik bestera joateko

kotxea hartu barik. Martxako egunean, antolatzaileak autobusa ipiniko dabe partaideak abiapuntura eroateko. Autobusa Bediatik urtengo da 08:30ean eta Arratiako herri guztietatik pasatuko da, Dimatik be bai, 09:30ean Zeanurin egoteko. Bueltarako be egongo da autobusa Bediatik urtenda.

### Kotxe Bako Eguna

Aste honen barruan, Kotxe Bako Eguna ospatuko dabe Bedian, hilaren 21ean, domekaz. Bizikletearen erabilera bultzatzeko asmoz, ibilbide bat egingo dabe herritik zehar eta partaide guztien artean bizikleta bat zozketatuko da. Bizikleta elektronikoen erakusketa be egongo da plazan.

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)  
Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

## Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**  
Banatzaile  
ofiziala



· Zuk behar duzuna  
daukagu, galdetu  
konpromiso gabe.  
· Garraio zerbitzua.

## INBIU

# Soka bategaz trailer bat mobiduko dabe igorreztarrak Inbiu Egunean

Hilaren 20an, "Inbiu" Igorreko Euskera Eguna ospatuko da. Egun horretan, igorreztarrak soka batetik tiraka trailer handi bat mobiduko dabe Agirre Lehendakaria kaletik zehar, Gau Lora tabernaren paretik Kultur Etxe pareraino. Euskerearen normalizazioaren metafora da kamioia eta aurrera egin daian, danen ahalegina beharrezkoa dala irudikatu gura dabe holan.



Inbiu Eguneko bazkaria.

## Erredakzioa

Ekintza ikusgarri hau arrastian izango da. Goizean alkarteen azoka bat egongo da eta han Arratiako hainbat alkarrek emongo dabe egiten daben behararen barri. Bertan egongo da Zertu Kultur Elkarte, BEGITU hamabostekari hau argitaratzen dauan alkartea, edo Beinke!, Merkatarien Euskera Taldea. Arratia Bizirik-ek, Igitiek, Astrapaleak, Nokak, Motxoganeak, AMEk eta beste askok be eukiko dabe euren mahaitxo inofrmazioa emoteko.

Azokearen inguruan, barriz, ekintza dinamikoak egongo dira, honeek be alkarreak egindakoak.

Luis Iruarrizaga Abesbatzak hasikerea emongo deutso azokeari kanta bat abestuz, eta gero jantza taldekoak jantza batzuk erakutsiko deutseez interesatuta dagozanai.

Inbiu Eguna, "herritarrai akordau arazoteko ondino behar handia dagoala euskerearen normalizaziorako" sortu zan orain 14 urte Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak jakinarazo dauanaren arabera, eta urri lehenengoan egitea ebatzi zan, ikasturte hasikeran, Euskera Planaren barri emoteko. Planaren barri modu ludikoan emoten saiatzen dira Igorreko Euskera Zerbitzukoak, eta lortu be, lortzean dabe. Alde horretatik, ezin ahaztu Lip dub-a,

edo Mihiluze Txapelketea, esate baterako.

Herritarrentzat Inbiu Eguna jai bat izan arren antolatzaileen helburua harago doa, "beti ahalegintzen gara zelan edo halan mezuak bialtzen, sensibilizatzen, Planaren barri emoten..." dino teknikariak.

Horretarako panelak egongo dira aurten, bai Inbiu Eguneko azokan, bai egun batzuk lehenago Kultur Etxeko Erakusketa gelan. Parte hartze batzarretatik ateratako informazioa egongo da panel honeetan, eta herritarrak ekarpenak egin ahal izango dabez pegatinen bidez.

## Plan Barria egiten

Igorreko Euskera Plan barria hasi dira egiten. Lehenengo Euskera Plana, 2003-2006. urte bitarteko Plana izan zan. Han, helburu nagusi moduan, herrian euskerearen erabilera handitutea eta euskeraz biziteko aukerea posible egitea zehaztu ziran. Planaren ebaluazioa egin eta beste bi urtez luzatu zan Plana, 2007-2008 urteetan hain zuzen; eta 2009an EBPN onartu zan, 2009-2012 indarraldia ebana. Gero, Planaren ebaluazioa egin ostean, 2013-2014 urteetarako Plan barria onartu zan.

Orain, hurrengo bost urteetan indarrean egongo dan Plana egiten dabiz igorreztarrak. Horretarako, Euskera Planeko Batzorde eragilea hilean behin batzean da, eguaztenetan 19:00etan, Kultur Etxean. Bertan Teknikariak bideratuta, herritarren parte-hartzeagaz, Plana diseinatu, garatu eta ebaluatu egiten da.

Aldaketa batzuk egon dira lehenengo Plan haretatik gaurkora. Lehen EBPN (Euskera Biziberri-

## Hurrengo bost

### urteetarako Euskera

### Plan barria egiten dabiz

### Igorren

## Kuadrillen hizkuntza

### ohituretan eragin behar

### dala uste dau Arauzo

### Euskera Teknikariak

946 319 008  
658 195 091

Udagaien eta neguko kolezio barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera  
www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

**GALANTA**  
zure barruko arropa

**M. JOSE**  
barrutik janzen zaitu

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinio Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**Olaetxe**  
OPTICA ENTUZA



tzeko Plan Nagusia) zan, eta orain ESEP (Euskera Sustatzeko Ekintza Plana) da, eta horretara egokitu behar dira Euskera Planak, Igorrekoa be bai. Aldaketarik nagusia, ESEP erabilereari begira dagoala da.

Dana dala, Igorreren kasuan, Euskera Teknikariaren kezka nagusia da, herrian jentek ez daukela euskerearen inguruan ezelango kezka edo tensinorik somatzen. Izan be, Igorre euskalduna dala eta danak dagozala euskerearen alde pentsetan dabe askok eta euskerea bultzatzeko beharizanik ez dabe ikusten. Euskera Planeko Batzorde eragilean horrerri buelta batzuk emoten ibili ziran, eta landu beharreko hiru lehentasun esparru markau ebezan. Eta atzenengo urteotan horreetara bideratu dabez indarrak eta baliabideak.

Lehentasuna daukan lehenengo esparrua, hizkuntzearen transmisioa edo sozializazioa da. Gaur egun, transmisioa kontzeptua apur bat krisian dago eta hizkuntzearen sozializazioa esaten dala azaldu dau Arauzok, "hizkuntza ez dalako familiatik bakarrik jasoten, eskolatik eta bardinkideakaitik be jasoten dalako. Kontestua aldatzen dago eta hizkuntzearen transmisioa bera be bai".

Lehentasunezko bigarren esparruak gazteak hartuten dauz jomuga. Atzenenengo kale erabilerearen neurketeak, Igorren euskerearen erabilereak behera egin daukela gazteen artean erakutsi eban. Euskal Herrian orokorrean, barriz, kontrakoa gertatzen da.

Hirugarren lehentasun esparrua euskalduntzearena da. Hemen Igorreko joereak Euskal Herrikoagaz bat egiten dau: hau da, euskaldunen porzentajeak zertxobait behera egin dau.

Horregaitik, parte-hartze prozesua antolatzerakoan, deialdi zabal bat egin beharrean, lehentasun esparru horreetako eragileak batu dira batzordekoak, hizkuntzearen transmisioan agente diranakaz batez be: guraso, aitia-amama, alkarte eta irakasleakaz, hain zuzen be. Gazteakaz eta politikariakaz be batu dira. Eta parte hartze saio horreetan jasotakoa ikusgai egongo da Inbiu Eguneko alkarte azokan, "Geurea erakutsi, igorretarron azoka" lemapean. Parte hartze saio horreetatik, Euskera Planeko batzordekoak, euskereari lotutako beharizanak,

arazoak, nondik jo eta zertan inbertidu jakingo dabe.

Planak, bai EBPnk eta bai ESEPe bidea finkatzen dabe, esparruak eta esparruon helburuak zehaztu, eta zeharlerroetan zer landu behar dan agertzen dabe: sensibilizazioa, motibazioa, euskerearen prestigioa, lidergoa, eredugarritasuna eta jarkera aktiboak, besteak beste. Horrerri guztiorrerri forma emon behar deusie Plana egitean, baina Igorrekoak ez dira zerotik hasten eta hainbat esparrutan ibilbidea hasita dago, merkataritzan edo alkarteakaz, kasurako.

Plan barriaren aurkezpena herri mailan abenduaren 3an egiteko asmoa daukie Euskera Zerbitzukoak.

### Euskerearen erabilerea Igorren

Lehentasunezko esparruak ebazteko eta Plana bera egiteko, Soziolinguistika Klusterrak egiten dituan Kale Erabilerearen Neurketearen emoitzak erabilten dira. Lehenengo neurketea 2001 urtean egin zan, bigarreana 2006an eta hirugarrena 2011n.


Hamar urte horreetan, 10 puntu egin eban gora euskerearen kale erabilereak Igorren. Datuak ez dira txarrak eta aurrerapausuak emon dirala erakusten dabe. Baina edade taldeka aztertean, kezka eragiten dauan joerea agertzen da. Izan be, Igorren, Euskal Herrian ez bezela, gazteen arteko euskerearen kale erabilereak behera egin dau: 2006an % 43,5etik 2011ko % 35era pasau zan, Klusterraren datuen arabera.

Atzenengo Planean, eta gazteen artean euskerearen erabilerea sustatzeko, beste udalerrri batzuetan be egiten dan "Kuadrillategia" ekimena ipini dabe martxan Igorren. Ekimen honen helburua kuadrilla barruko hizkuntza ohituretan eragitea da. Kuadrillak izena emon, eta gazteak eskatutako ekintza ludiko bat egiten da, hilean bitan, barikuetan: barreterapia, eskalada edo tupper sex, esate baterako. "Oso arrakastatsua izan da, 20 gazte ibili dira proiektu horretan. Hiru kuadrillagaz, 14-16 urte bitarteko gazteakaz, lan egin dogu. Orain, Gazte Plana dagoanez, Gazte Planak hartu dau Kuadrillategia ekimena" dino teknikariak.

Ez da hori izan, euskerea sustatzeko gazteakaz egindako ekintza bakarra. Holan, Institutuan, DBHko 3. kursoan lagunarteko hizkera informala landuteko ikastarotxo bat emongo dabe, aurreko ikasturtean egin eben moduan. "Erregistro informalean baliabide falta izaten dabe gazte askok eta orduan baziletako, ligetako edo haserre adierazoteko gaztelanira jotzen dabe" dino Euskera Teknikariak.


### EUSKEREAREN ERABILEREA ETA EZAGUTZEA IGORREN

Hizkuntza-gaitasuna. Igorre, 2011




-Euskaldunak	2.742
-Ia euskaldunak	585
-Erdaldunak	704


### Hamar alkarrizketetatik ia erdia euskeraz Igorren



### Adinaren arabera




### EUSKEREAREN KALE-ERABILEREAREN BILAKAERA. IGORRE, 2001-2011



### HIZKUNTZA-ERABILEREAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA

Urte	Haurrek	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	34,9	48,4	27,9	35,2
2006	47,9	43,5	24,4	58,9
2011	62,9	35,4	38,6	48,6

### HIZKUNTZEN KALE-ERABILEREA, SOLAS-TALDEAREN OSAKETEAREN ARABERA



## BIZIKLETA MARTXEA

Kirola eta giro ederra  
Arratiako Emakumeen  
I. Martxa Zikloturistan

Zikloturistak Urbietan futbol zelaiaren ondoan.

## Erredakzioa

Urri lehenengoaren 13an, 30 eta 50 urte bitarteko 38 txirrindulari abiatu ziran Igorretik Arratian zehar Arratiako Emakumeen I. Martxa Zikloturistan. Tartean, Naia Alzola nazinoarteko mailako ziklistea egon zan, baina gehienak inoz konpetidu ez daben bizikletazaleak ziran. Izan be, bizikletazale baten ekimena izan da, Aitziber Salcedo igorretarrarena hain zuzen; eta Igorreko Udalak antolatu eban, Arratia Ziklista Elkartearen (AZE) laguntzeagaz.

Martxa zikloturista hau antolatuteko idea AZEn bertan sortu zan. "Semea AZEn hasi da eta han, beste ama batzuek berbetan, konturatu nintzan andra asko dagozala bizikletan ibiltea gustau arren, ez diranak bidera urteten"

dino Aitziber Salcedok. Idea honer bueltaka, Ander Gorospe AZEko zuzendaritzakoak esan eutsen ziklismoa sustatzeko zerbaist egin behar ebela eta martxa hau egitea pentsau eben. Bizikletan ibiltea gustukoa daben andra guztiak parte hartu ahal izateko, 24 km.ko ibilbidea prestatu eben Arratiatik zehar. Igorretik Zeanuriraino eta buelta Dimatik pasata: bi edo hiru ordutan egiteko modukoa.

## Bidera urteteko animetan

Aitziber Salcedo sustatzailearen arabera, hainbat helburu ditu martxa honek. "Kirola eginez ondo pasetea, gurasoakaz umeak be animetea bizikletan ibiltzen, bidera urteteko bildurra edo lotsa kentzea eta bizikletan ibilteko ohitura hartzea eta mantenidutea".

## TXIRRINDULARITZEA

Iban Mayo Bizikleta Martxea  
"apur bat bigunagoa" aurten

## Erredakzioa

Iban Mayo Lagunarteak IX. Iban Mayo Martxea hilaren 21erako antolatu dau. Partaideak 09:00etan urtengo dira Igorretik eta 111km. egin beharko dabez martxea amaituteko. Bidean mendate gogor batzuk be badagoz, Urkiola tartean, baina aurten igazkoa bezain gogorra ez dala izango azaldu deutso BEGITURI Luis Atutxa Iban Mayo Lagunartekoak. "Munitibar-Urrutxua zatia kendu dogu eta Errigoitia, Morgia, Larrabetzu eta Zornotzatik joango da aurten"



dino Atutxak. Ibilbidea, beraz, hauex izango da: Igorre, Zornotza, Larrabetzu, Morgia, Muxika, Gernika, Errigoitia, Morgia, Larrabetzu, Zornotza, Durango, Urkiola, Otxandio, Zeanuri eta Igorre.

Urtero lez, Iban Mayok berak be hartuko dau parte bere izena da-roan martxa honetan beste 200 zaletu ingurugaz batera. Igaz 180 lagunek hartu eben parte, antolatuzaileen arabera.

## Zaletasuna sustatzen

Arratian dagoan bizikleta zaletasuna eta Iban Mayok lortutakoa ikusita, "marka bat sortzeako" sortu zala martxa hau dino Atutxak. Jentea bizikletea hartzera animetea eta urtean behin zaletu profesionalen moduan ibilteko aukerea eskeintzea dira martxaren beste helburu batzuk.

## RAID

III. Arratia Raid  
Otxandion

## Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, Otxandion izango da aurten, AKKBk eta Arratia Raid taldeak antolatuten daben Arratia Raidaren hirugarren edizioa. Piragua proba egin ahal izateko Otxandion egitea ebatzi dabe antolatuzaileak.

"Zonaldeko jentea parte hartzean animetako, Arratia-Otxandio kategorian berezia antolatuko dogu, eta saria eukiko dau Arratia-Otxandio lehenengo taldeak" dino Xabier Iturriaga AKKB eta Arratia Raid taldekoak.

## Proba ugari

Piragua proba horrezaz, raid "betea"

izango dala dino. Egin beharreko beste proba batzuk: mendiko bizikletea, trekkinga, sokak, proba bereziak, orientazioa eta tirolina izango dira.

Izena <http://arratiaraid.blogspot.com.es/> webgunean emon daiteke.



## ERRUGBIA

Ligea hileon  
hasten da

## Ainhoa Duñabeitia

Amaitu dira oporrak eta horrezaz batera errugbi denporaldi barria hasten da. Zekorrek martxan jarrita dagoz, entrenamentuak hasi ziran aste batzuk dirala eta orain denporaldi aurreko partiduakaz dabiz. Aurreko astegienean, hilaren 13an Uribealdearen aurka jokatu eben lagunarteko partidu bat. Ez eben garaipena lortu Zekorrek, 12-7 izan zan atzen emoitzea. Denporaldiko lehenengo norgehigokan barriro be jokatu beharko dabe Uribealdekoen kontra. Etxean jokatuko dabe gureak, hilaren atzen astegienean, 27an hain zuzen be.

ARA MOTZ  
Laguntza eta Jabetza  
Herri Ugarana 2. et. Arriatiko Otxandio - Herriko Plaza  
www.ararimotz.com

OPEL  
Ibaigana, S. Coop. Ltda.  
Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tel: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

BOXPAL  
618 59 81 71  
Pintura lanak  
Hurgintza  
Instalazio elektrikoak - aberiak  
lehoi eta oten konponketa  
Pertsona konponketa  
Igeltserotza  
E-posta:boxpalboxpal@yahoo.es

24h  
Egunkari Ogiak  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Laguntza eta Jabetza

HERRIKO BENTAK  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 56

Gure Ikastetxeak  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetueko, herrikoak

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY  
TABERNA

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIAR RAID  
ARRATIAR RAID

arratiako.zekorrek@gmail.com  
<http://santxisme.blogspot.com/>

## FUTBOLA

# Neskak osotu dabe kanterea



Naia Bilbao.

### Erredakzinoa

Aurten lehenengoz bere historian, Arratiako neskak futboleko ibilbide osoa egin daiek, benjaminetatik hasi eta nagusien kategoriarara heldu arte. Euskal Ligan jokatu dauen nagusien taldeak, beraz, badauka bere kanterea. Aurreko denporaldian kategoria bakarra falta zan, gazteak, baina denporaldi honetan beteta dago hutsune hori.

Larogei bat neskak jokatu dabe Arratia Futbol Taldean, kategoria desbardinetan. Talde bakotxean 16-18 jokalaririk inguru dagoz eta juxtu antzean dagozala beti, dino Naia Bilbao taldeko koordinatzaileak. "Juxtu gabiz kategoria guztietan. Bost kategoria dagoz. Benjaminak oso txikiak

dira eta neskak eta mutilak alkarregaz jokatu dabe" azalduen dau. Dana dala sano pozik dago kategoria guztiak dagozalako. "Lehenengo aldia da hau pasetan dana eta Arratia moduko leku txiki baterako sano garrantzitsu eta polita da".

**Taldeari egonkortasuna emoten**  
Nagusien taldea urte askotan izan da bakarra andrazkoen kategorian. "Urtero-urtero burruka bardina zan: lortu behar genduan jente nahikoa taldea mantentzeko. Aurrerapausu itzela izan da" dino Bilbaok.

Nagusiak David Andak entrenauko ditu aurten. Entrenatzaile profesionala da Anda. "Euskal Ligan jokatu den dogu eta behar zan entrenatzaile profesionala".

## FUTBOLA

# Liga hastear Arratiak

### Ainhoa Duñabeitia

2014-2105 denporaldia hastear dago eta arratiar talde guztiak prest dagoz denporaldi barriari hasikera ona emoteko. Arratiako gizonen taldeak lagunartekoak izan ditu eta emotzak danetariakoak izan dabez. Partiduak be batzuk onak eta beste batzuk ez hain onak. Baina atzen finean aurrendenporaldia izan danez, gauzak hobetuteko balio izan deutse.

Arratia taldeko gizonen talde hila- ren 20 edo 21ean jokatu dabe ligako lehenengo neurketea, etxetik kanpo Basaurin hain zuzen be, Baskonia B-ren kontra.

Andrazkoen taldeak, urri bigarrenaren hasieran emongo deutso hasikerea ligan. Urri bigarrenaren 5ean izango dabe lehenengo partidua eta Betiko Neskak taldea izango dabe aurrez-aurre etxetik kanpo.

Gizonen taldeak Arratia B taldeak barri, urri bigarrenaren 19an izango dau lehen partidua etxean, Iberlandaren aurka.



## SLALOM

# Slaloma Diman, Euskadi eta Bizkaiko Txapelketarako puntuagarria

### Erredakzinoa

Durangalde Racing eta Aginona Racing-ek antolatuta, hilaren 21ean Ugarana-Dima V. Slaloma izango da. Proba hau, Euskadiko

Txapelketarako eta Bizkaiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Hogetabost kotxe inguruk hartuko dabe parte. Asier Tejado dimoztarra egongo da partaideen artean, bere BMW 325agaz.



Zirkuitua Dimako eskolara, frontoia eta behelaldeko parkinara osotuta dabe. Eta hau hiru bider egin behar izango dabe. Faberitoa Oscar Revilla Durangokoa da. "Aurtengo txapelketan, bost proba egin eta bostak irabazi ditu Revillak. Bera da gure kriptona. Bera doa lehenengo bigarrenari alde aterata" dino Asier Tejado pilotuak.

Kotxeak Araudiak eskatzen dituan seguridateko neurriak dituen ala ez ordu bi terdian hasiko dira konprobatu eta 16:00etan urtengo da lehenengo partaidea.

## LASTO BOTATZE

# Zortzigarren txapela lortzean saiatuko da Tubi Txapelketan

### Erredakzinoa

Hilaren 28an Euskadiko Lasto Botatze Txapelketea jokatu da 12:30ean Etxebarrin. Bertan egongo da Joxe Martin Bustintza "Tubi" kirolari dimoztarra. Tubi orain arte jokatu dituan Euskadiko zazpi txapelketak irabazi ditu

eta oraingoan be saiatuko da zortzigarren txapela lortzean.

Aukera asko ditu Tubi, faberitoa izateaz gainera urte ona daroa eta. Holan, bagilan, Diman Euskadiko Lasto Altxatze Txapelketea irabazi eban, modalidade honetako bosgarren txapela lortuz.

## RALLYSPRINT



Igazko Rallysprinteko irudia.

# Zeberio-Artea Rallysprinta, Lurgaineko bakarra Erkidegoan

### Erredakzinoa

Hilaren 27an izango da Zeberio-Artea III. Lurgaineko Rallysprinta, Gorbailde Racing-ek antolatuta. Aurten, 30 kotxe parte hartzea espero dabe antolatzaileak, aurreko urteetan baino gehiago. Piloto gehienak Erkidegokoak izango dirala dino Iker Ercilla Gorbailde Racingekoak, baina Nafarroa, Errioxa, Kantabria, Galiza, Gaztela eta Kataluniatik etorritakoak be lehiatuko dirala uste dau. Igaz Aritz Iriondo eta Aitor Zubiaurre gipuzkoarrak irabazi eben.

Sarasolatik (Artea) hasiko da lurgaineko rallysprinta. Kotxeak basoko pista batetik ibiliko dira eta lau bider egingo dabe bidea, aha-

lik eta lasterren. Irabazlea ibilbidea denpora gitxienean egiten dauana izango da.

Zeberio-Artea Lurgaineko Rallysprinta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian egiten dan lurgaineko bakarra dala dino Ercillak. Horregaitik, Euskadiko Automobilismo Federazioak bultzatu gura izan dau eta proba hau Open baten barruan dago. Bertan, Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Kantabria, Galiza, Gaztela eta Kataluniatik hartzean dabe parte.

### Ordubetetatik seirak arte

Bidetik pasetan notak hartzeako, 13:00etan hasiko dira. Lehenengo partaidea 15:00etan urtengo da. Seirak aldean urtengo da atzena antolatzaileen arabera.

**KIRRU • ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 34 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a ☎ 94 673 70 87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609 79 40 54

**Abokatuak**  
**basolo Emaldi**  
Abokatuak  
☎ 620 57 86 04  
✉ asierbasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

**umean made**  
**sem**  
Gogoratu leku barrian gagozala  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa 3, 48530 LEMOIA Bizkaia  
Tel. 090 480 830 ☎ 090 200 717

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

## LIBURUA

# Danele Sarriugarteren *Erraiak* lanagaz hasiko dabe ikasturtea Bedian

Hilaren 24an hasiko dau ikasturtea Bediako Irakurle Klubak, oraingoan Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989) egongo da bertan bere lehenengo nobelea *Erraiak* (Elkar, 2014) irakurleakaz komentetako.

**Erredakzioa**


Sarriugarteren nobeleak bikote haustura mingarri bat dauka abiapuntuzat eta bertan umore eta ironiaz hainbat gai ikutzen ditu; jentearen arteko hartu-emonak, andren egoera gaur eta hemen, alkoholaren konsumoa Euskal Herrian eta gazteen bizimodua, kasurako. Bakarriketa bat da eta andrazkoaren ikuspuntutik kontautau dago.

Danele Sarriugartek irabazi eban Igartza literatura sorkuntzarako bekea 2012an eta horren emoitzea da liburu hau.

**Irakurle Kluba**

Bediako Irakurle Kluba bi hilerik behin batzean da eguaztenetan Bediako liburutegian. Bertan, gaur egungo euskal panorama literarioko lanen bat irakurri ostean, liburu hori komentau eta egileagaz berba egiteko hainbat arratiaz batzean dira. Klubaren dinamizatzailea Julen Gabiria idazlea da.

Julen Gabiriaren lanik ezagunena, *Connemara gure bihotzetan* eta *Han goitik itsasoa ikusten da* dira. Atzenengo hau nederlanderara itzuli dabe *Van da arboven zie je de zee* izenburuagaz. Itzulpen honen aurkezpena, Gabiria bizikletaz joan zan Gernikatik Amsterdam-eraino, Irakurle Klubeko dinamizatzailea txirritularitza zalea be bada eta.



## IKASTAROAK

## Urtxintxa Eskolak eta Mankomunidadeak gazteentzako ikastaroak emongo dabez

**Erredakzioa**

Urtxintxa Eskolak eta Mankomunidadeak gazteentzako beharri begirako ikastaroak antolatu ditue; begirale ikastaroa eta Makina-erreminta ikastaroa, hurrengo hurrengo.

**Urtxintxak, begirale ikastaroa**

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak 2014-2015 ikasturterako begirale ikastaroak antolatu dau hainbat eskualdetan, tartean Arratian. Arratiako begirale ikastaroak ikasturte bi hartzean ditu, urri bigarrenetik maiatzera eta astegoietan izango da. Guztira 200 ordu teoriko eta 120 praktiko izango ditu. Matrikulea Bilbon egin behar da urri lehenengoaren 30a baino lehen. Urtxintxa Eskolak hezitzailei trebakuntzea emoteko beste ikastaro batzuk be eskeintzen ditu Bilbon.

**Makina-erreminta ikastaroa Zulaibarren**

Arratiako Udalen Mankomunidadeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Arratia Gaztedi Programeagaz lanikidetzan, gazteai zuzendutako Makina-erreminta ikastaroa ipini dau martxan Zulaibar Ikastegian. Ikastaroa urri bigarrenetan hasiko da eta 200 orduko iraupena eukiko dau, eskola praktiko eta teorikoak. Izena emoteko epea zabalik dago.


**Sinopsia**

"Krisia dala eta Ane eta Gorka ezin dira etxetik joan. Alkarregaz urtetan hasi dira eta arazoak ditue gurasoen etxean intimidadea topetako. Sexu-harremanak izan guran, eta hotel bat ordaintzeko diru barik, gazteen artean ezagunak diran "pikadero"-en bila hasiko dira. Dana dala, gauzak ez dira dirudien bezain errezak izango eta euren erlazinoak erronkak topatuko ditu, Ane eta Gorka ekonomia eskas baten kateetatik libretan saiatzen diran bitartean".



## AUZOLANDEGIAK

## Bi mila metro karratuko eremua garbitu dabe Lemoatxen

**Lemoatxen beharrean egon diran gazteak.****Erredakzioa**

Lemoa, 1937ko Lemoatxeko batailearen eszenalekua berreskuratzen dabil apurka-apurka, Auzolandegeiak 2013 eta Auzolandegeiak 2014n, Aranzadi Zientzia Elkarteak Asier Izagirren zuzendutako egindako gazteen beharri esker, neurri handi baten. Orain arte egin dabena, batez be, lubakiak berreskuratzea izan da.

Holan, 2.000 m<sup>2</sup>ko eremu bat zabaldu da, garbiketa lanak eginda. Eremua apur bat be atondu dabe, lubakiak garbituz eta zakuak ipiniz. Behar hau egin eta gero, metal detektorea pasau dabe eta metraila zatiak, balak eta kaskilloak topau dabez.

"Aurten igaz baino material gixiagi aurkitu badogu be, ohiko gauzez gainera, beste gauza desbardin batzuk be topau doguz; besteak beste, gudarien plater

bat, tintontziak, sasoi haretako atxur pare bat eta gudarien erroren aztarna gitxi batzuk" adierazo deutso BEGURI Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

**Gantzabal mendi osoa lubakiz beteta**

Behar handia egin dabe bai gazteak, bai herritarrak. "Gazteak egindako lana oso handia izan da eta euren esker inguru asko barriztu da. Holan gainera, herriko jenteari informazio gehiago dauka gertatu zanaren inguruan eta esan beharra dago herritarrak emondako erantzuna be sano handia izan dala. Atzen egunean gazteak herritarrak batera beharra egiteko aukerea izan eben". Baina ondino asko geratzen da egiteko; izan be, Garciaren eretxian, behararen % 30 baino ez da egin, Gantzabal mendiaren gane guztia lubakiz beteta dago eta.

## CASTINGA

## Arratian grabauko dan pelikula baterako estra bila

**Erredakzioa**

Arratian grabauko dabe Eskoziako Ben Sharrock-ek zuzendu eta Igorreko Irune Gurtubai ekoizten dauan *Pikadero* pelikulea. Horretarako estra bila dabiz. Hilaren 18an, arrastiko 19:15ean, Igorreko Kultur Etxean castinga egingo dabe estrak topetako. Estrat moduan parte hartzeako eda de guztietako jentea behar dabe eta ez da esperientziarik behar. Pelikulea euskeraz izango da.

Urri bigarreneko atzen aste bietan grabauko da pelikulea Arratian. "Arratia agertzen da, baina ez da esaten Arratia danik. Ezetuten dabena jakingo dabe" azal-

du deutso BEGURI Irune Gurtubai ekoizleak. "Drama-komedia" bat da, dirua eta sexuaren inguruko.

**Igorreko ekoizlea**

Irune Gurtubai produktorea ezaguna da gurean. 2012an Lekeitioko jaialdian sari bat irabazi eban *The Zealot* metraje laburreko film bategatik eta Igorreko lehiaketan be hartu eban parte. Metraje laburreko hainbat film ekoiztu ditu, baita film luzeetako ekoizpen taldeetan parte hartu.

Gurtubai Igorren bizi dan arren, Edinburgh-en ezagutu eban Ben Sharrock zuzendaria eta pelikula hau Arratian eta euskeraz egitea ebatzi eben.

<p><b>Okindegia</b> + Ke... PAN Etxean bertan egindako pastelak</p>	<p><b>IGORRE</b> Lehendakari Agirre 11 94 656 65 52 Sabino Arana 35 94 657 3898 <b>AREATZA</b> Goiko kalea 8 94 608 90 47</p>
---	---

# www.begitu.org

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

# begitu

arratia ubide zehar

## IKASTAROAK

# Burua eta gorputza sasoian eukiteko ikastaroak abian



Pilates egiten ikasle batzuk.

### Erredakzinoa

Ikastaro batzuek 2014-2015 ikasturte osoa hartuten dabe, beste batzuek hiruhileko bat, eta beste batzuek saio bakar batzuk. Badagoz, ibilbide luzea egin dabenak daborduko, arrakasta handia izaten dabelako, eta badagoz barriak, herritarren eskakizun bateri erantzuteko eskeintzen diranak. Aukerea handia da. Aurreko zenbakian Arantzazun, Bedian eta Lemoan egin daitezkean ikastaroen barri emon genduan. Honetan, beste herrietako eskeintzea.

Urri bigarrenean hasten diran ikastaroak egin ahal izateko, oraingo hilean egin behar da matrikulea.

### Areatzan, gorputza mobidutakoak

Yoga ikastaroa, 3. adinekoentzako gimnasia, Aerobic, Pilates, eta Euskal jantzak ikastaroak egin daitezke Areatzan ikasturte honetan. Ikastarook urri bigarrenean hasi eta maiatzean amaituten

dira eta eskolak astean behin edo bitan izango dira ikastaroaren arabera.

Debaldeko ikastaroak be badagoz. Holan, 3. adinentzakoentzako gimnasia doban da jubiladu eta pensionistentzat. Eta Euskal jantzak be praktikau daitezke doban, hori bai, irakasle barik, udaletxeko espilu gelan. "Aurreko urteetan Areatzan jantza ikastaroak antolatu izan dira, eta ikastaro honeetan parte hartu dauan jenteari praktiketan jarraituteko aukerea emon gura jako. Ez dago irakaslerik eta horregaitik ez da ezer ordaintzen, baina Arantzarten dagozan neska bi dagoz, eta honeek asko lagunduten dabe pausu barriak ikasten, Arratiako jotea, esaterako" azaldu deutso BEGURI Sara Gutierrez zinegotziak.

Gainontzeko ikastaroak zati bitan ordaindu daitezke: zati bat orain eta bestea urtailan.

### Artean, gimnasia eta artearen inguruak

Artean, gitxienez 8 ikaslek emo-

ten badabe izena, Aerobic, Pilates, Yoga, 3. adinekoentzako gimnasia, Arte aplikauak, Pintura eta Eskulanak egiteko aukerea egongo da. Urtean-urtean antolatuten dira ikastaro honeek. Izan be, Artea herri txikerra izan arren, parte hartzea handia izaten da, gimnasia eta arteagaz lotutako ikastaroetan.

### Igorren zirkoa eta jantza afrikarrak

Igorre dogu gure eremuan herritar gehien daukazan herria eta eskeintza zabala egoten da bertan, edade guztietako jentearentzat. Tai Chi, Jantza afrikarrak, Irakurketa tailerra, Zirkoa, Argazkigintza, Zoru pelbikoa indartzea, Diseinu grafikoa eta Ines Medinaren Plastikaren bidetako autoestimuaeren garapena (gaztelaniaz) ikastaroa egingo dira ikasturte honetan. "Aurretik eskeinitakoak dira gehienak, Diseinu grafikoa izan ezik. Hau Eider Aldapek emongo dau. Zoru Pelbikoa indartzeko ikastaroa be barria da" dino Janire Lopez Igorreko Kultura Teknikariak.

Kiroldegian be eskeintza zabala dago, hemen be ikastaro gehienak aurretik eskeinitakoak dira, Pilates edo Aerobic berbarako.

### Zeanurin zemendian

Zeanurin zemendian hasiko dira Pilates eta Aerobic ikastaroak eta matrikulazioa urrietan zehar izango da. 3. adinekoentzako gimnasia, barriz, urrietan martxan ipintea espero dabe, udal iturrien arabera.

### Zeberion, antzerkigintza

Zeberionko Udalak lau ikastaro eskeini ditu, gitxienez kopuru batek izena emon ezker martxan ipinteko. Ikastarook, Antzerkigintza, Edadekoentzako ariketa fisikoa, Eskulanak eta Zaharbarritzea dira.

Honetaz gainera, Ongizate Siletik tailer bi be eskeiniko ditue, edadekoak memoria entrenetako tailerra eta etxean menpekotasuna daukien personai zuzendutako tailerra.

## KIÑU GAZTETXEA

# Alkartasun azokea eta kontzertuak

### Erredakzinoa

Hilaren atzenengo bariku-zapatu-rako Kiñugazko alkartasun azokea eta On eta Voltaia taldeen kontzertuak antolatu ditue Igorren. Azokea barikuan izango da Kukuma tabernan, arrastian, eta kontzertuak zapatu gauean Kiñu Gaztetxean.

On taldearen sortzailea eta abotsa Itsaso Gutierrez da eta gitarrea be jotzen dau. Beragaz, Denis Alberdik (bateria) eta Ibai Suarezek (bajua) osotuten dabe taldea. 2012an grabau eben euren lehenengo lana, taldearen izen berekoa. Baina lehendik be ibilbide luzea eginda eukien musikariok rock munduan; Jauko Barik,

Keike, Branka eta Xarma taldeetan ibili dira eta.

Beste hirukote batek be joko dau gau horretan. Unai Eizagirik (bajua eta abotsa), Jon Duranek (bateria) eta Ion Brakamontek (gitarrea) osotuten dabe Voltaia taldea. Musika basatia, indartsua eta elektrikoa egiten dabe. Aurrerago Itaka eta Got-Ham taldeetan jo eben talde honetakoak.



# V

**AZKEN EGUNAK!!!**

**Argazki lehiaketea:**

bialdu zure argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera hilaren 25a baino lehenago.

Sari ederra eroan zeinke!!

**INBIU EGUNA**  
IRAILAREN 20an

## ZAPORE ETA KOLORE GUZTIAK

**105 APARKALEKUKO LANDAN**  
(11:00/13:00)

**JOKALDI**  
18:30etan  
**KULTUR ETXEAN**

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

## AGENDEA

### URRI LEHENENGOAK 16 ARRATIA

Udalak eraturako ikastaroetan izen emotea zabalik.

#### BEDIA

Udalak eraturako ikastaroetako izen emotea, hilaren 19ra arte. Liburutegian.

Sella jeitsierarako urtekerarako izen emotea, hilaren 26ra arte. Urtekera urri bigarrenaren 11n.

Jubiladuen egunerako urtekerarako izen emotea hilaren 19ra arte. Liburutegian. Urtekera Añanako Gatzagetara urri bigarrenaren 14an.

#### DIMA

Dimako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketan lanak aurkezteko hilaren 22ra arte.

#### LEMOA

Hile osoan eusLiderrak tailerlean eta Euskera eskoletan izena emoteko epea. Udaleko Euskera Zerbitzuan.

Hilaren 19ra arte, Sukaldaritzaren teknika barriak ikastaroan; Joskintza eta Patchwork ikastaroan eta Eskulan ikastaroan izena emoteko epea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Informatika ikastaroan izen emotea. Martitzenetan 09:00etatik 11:30era arte eta 17:30etik 19:00etara, eguztenetan 17:30etik 20:30era eta eguenetan 09:00etatik 10:30era, informatika gelan.

### URRI LEHENENGOAK 18 IGORRE

Igorreko Gure Esku Dago Taldeak eta Rugby Tabernak antolatuta, Eskoziako erreferendumaren ospakizuna. 18:00etan *Gazta zati bat* filma, Giza Kateko argazkiak eta bideoak, musika. 19:30ean, parrilladea eta pintxoak. Rugby Tabernaren ondoan.

19:15ean batzarra Kultur Etxean. Erresuma Batuko film bat estra bila dabil urri bigarreneko atzen aste bietan grabauko dan pelikula baterako.

### URRI LEHENENGOAK 19 DIMA

19:00etan, Dimako Gure Esku Dagoren

Taldearen batzar irekia, aurrera jarraitzeko idea eta proposamenak batzeako. Frontoi txikian.

#### LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, *Stretching* saioa, Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

### URRI LEHENENGOAK 20 ARTEA

10:00etan, XXI. MerkArtea. Euskal Elikadura eta Artisautza Azokea. 12:30ean, Gure Musikari Handiak, txobongilo erraldioen desfilea. 18:30ean, Aiko taldeagaz jantzak ikasi plazan. 21:30ean, Oreka Tx frontoian. 23:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz.

#### IGORRE

Inbiu Eguna. 11:00etatik 13:00etara azokea 105

aparkalekuaren ondoan. 13:00etatik 13:30era danan artean azokea batu. 13:30etik 14:45era, bertso-triki-poteo jantzaria. 15:00etan, herri bazkaria. 16:45ean, danak bidekurutzera. 18:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz, AMEK antolatuta. 20:30ean, txokolatea danantzat, Beinke! Merkatarien Euskera Taldearen eskutik.

#### ZEANURI

09:30ean, Arratiako Ibaierzetatik V. Martxea. Zeanuri-Bedia. AUMk antolatuta.

### URRI LEHENENGOAK 21 BEDIA

10:30ean, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan. 11:30ean, BH markako bizikleta elektronikoen erakusketea. Probetako aukerea egongo da

Bediako plazan. 13:00etan, parte-hartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko da.

#### DIMA

16:00etan, Ugarana-Dima slalom-a.

#### IGORRE

09:00etan, IX. Iban Mayo Marxa Zikloturistea. Igorreko kiroldegitik urtenda.

#### LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Betsaide (564 m.).

### URRI LEHENENGOAK 23 BEDIA

17:00etan, tailerra: txorien etxebuak. Liburutegian.

### URRI LEHENENGOAK 24 BEDIA

17:00etan, tailerra: txorien etxebuak. Liburutegian.

19:00etan Irakurle Kluba. Danele Sarriugarteren *Erraiak*. Liburutegian.

### URRI LEHENENGOAK 26 IGORRE

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

#### LEMOA

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

#### ZEBERIO

20:00etan, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

### URRI LEHENENGOAK 27 ARTEA/ZEBERIO

15:00etan, Zeberio-Artea III. Lurgaineko



## Oreinak marrualdian ikusteko urtekera

Urri lehenengoaren 27an, Parketxeak marrualdi sasoiko mendi urtekera antolatu dau, oreinen ikuskizuna ikusi ahal izateko. Gorbeia Bizkaiko aldean bizi diran oreinak ikustea ez da erreza izaten, baina euren marruak urrinetik entzuten dira. Oreinakana hurreratzeko momenturik onena iluntzea izaten da. Parketxean izena emon ostean, parte hartu gura dabenak arrastiko 17:30ean batuko dira Areatzan Gorbeia pagadi eta hariztietatik zehar ibiltzeko.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l\_jaztana@hotmail.com.

#### UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta maxicosia saltzean dodaz neguko eta udako fundeagaz. Interesautazagozenak 615 799 356 telefonora deitu (Laura).

#### VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeko kapazidatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

### DANERIK

#### TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

#### PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun

bi, sala handia, sukalde, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

#### LANGILE BILA

Asteburu eguerdian Dimako jatetxe baten lan egiteko prest dagoan persona baten bila nabil. Deitu 616 440 185.

#### LANGILE BILA

Etxeko beharrak egiteko eta umeak jagoteko persona euskalduna behar da. Deitu 646 600 490 (Eider).

### EROSI

#### TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soina erosiako neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

# Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Gorbeia Suzienek emondako kamiseta bana.**

Garazi Yurrebaso (Arantzazu)  
Amaia Arana (Lemoa)



**2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera film bat ikusteko.**

Rosa Ugartemendia (Artea)  
Begoña Zabaleta (Artea)

Igorreko Kultur Etxea  
Lasarte Aretoa

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12

urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Erritu. 2.- Moztu. 3.- Irrika, desio. Birritan, umeen berbetan, ibili. 4.- Nori atzizkia. Azkar. 5.- Bat erromatar. Talde, aralde. Oxigenoa. 6.- Lekeda. Emea ez dana. 7.- Oiz eta Bizkargi mendietan iturburu daukan Bizkaiko ibaiaren izena. Estaduko Nortasun Agiria. 8.- Prisaka. 9.- Adoretzu.

### GOITIK BEHERA

1.- Oxigenoa. Urritar, kaletar. Bokala. 2.- Irakatsi. Ogi-saltzaile. 3.- Espainiako ekialdeko uria, Alicanteko herrialdean. Barritsu. 4.- Birritan, korotza. Edo. Sanskritoko silaba sakratua. 5.- Asko. Oihartzuna irudikatzen dauan ninfa. 6.- Pampina. Jesusen garaiko apaiz nagusi judua. 7.- Bokala. Hainbatera. Bokala.



Topau munduko zazpi ur-jauzi ospetsuren izenak.

S	A	R	A	T	O	N	A	G	A
E	V	I	C	T	O	R	I	A	N
R	O	N	E	Z	A	U	K	Y	R
U	Z	T	A	G	O	L	U	O	A
M	I	Z	A	T	E	R	O	S	E
O	D	I	R	T	A	K	U	E	P
A	N	E	G	A	G	I	R	M	A
U	R	T	E	U	N	D	A	I	Z
T	X	I	E	K	A	R	U	T	E
X	A	R	P	A	Y	Z	P	E	T
I	S	K	U	R	N	A	U	P	L
K	A	L	P	E	R	A	D	I	N
T	E	R	A	N	A	R	E	D	O
O	S	T	E	K	O	P	A	S	U
A	P	O	K	H	A	R	A	M	E

# AKI MI KO

Iman Olatu



**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**begitu**  
arria ubide zerbeto

**BIXER**  
**TABERNA**

Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

**NAIARA** Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak

Avenida Los Chopos, 33 (Nagar) Tel: 94 630 40 94

**Esposizinoa eta fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE**  
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Ratona: A1, A, B78, B

Lehendakari Agirre 34  
Tfnoa: 94 673 71 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@euskalnet.net

**AKETEGIA**  
**GAV 35 LORA**  
**IGORRE**

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARUN HIGAZTINEN  
ASIGURUTAN

Salme Arria, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 71 41 - 414 (Gorri)

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**axular**  
kultza-erakunde

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

**L**

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskaintza zain erdara

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona: 94 631 56 31 Faxa: 94 673 70 63  
e-posta: unida@euskalnet.net

## UNAI LOIOLA

**"Sarritan jausten zara, baina altzau eta aurrera segidu behar dozu"**

Esan leiteke gurean ohikoa ez dan kirol batez etorri jakola Unai Loiola BEGITURI. Bost errudako lineadun patinak jantzi eta inertiaren laguntasunagaz aldatz beheran ibiltzen da. Lehenengo egunean, eperdiz frenetan eibeban, bigarrean be bai, frakak apurtuteaz kantsau zan arte. Ekinagaz frenetan ikasi eban, berez zutunik bajatu behar da eta. Pare bat hile baino ez badaroaz be bigarren gelditu zan Espainiako Txapelketan.

**Irati Urien****Praktiketan dozun kirolaren aurkezpen bat.**

Patinetan jaitsiera izango leteke. 2005ean Espainiako Inertziadun kirolen Federazioa (FDI) sortu zan, orduan lasterketak segurua-gaz, anbulantziak... kondizioetan egiten hasi ziran. Geroago Euskal Herrikoa be sortu zan. Patinena inertziadun kirol horreen barruko modalidade bat da. Kontua da mendiko portuak inertziaren laguntzeagaz bakarrik bajatutea, eta zelan ez arinena izatea.

**Noz eta zergaitik egin zenduan kirol honetarako apustua?**

Garagarrietik daroat *Downhill* egiten.

Berez, patinetan urte bi inguru daroadaz. Frenetan ikasi neban, geroago paretan be bai eta behin aldatzak bajatuten hasi nintzanean asko gustau jatan. Ez neban jakin federauta dauan kirola danik ez ezer. Neskalaguna Kirol Zientzietan lizentziatua da eta asko lagundu deusta. Berak federau eta pilotu lizentzia egin eustan, lasterketak enterau zan... Egia esan bera barik ez neban jakingo zelan sartu honetan. Entrenadore personal edo *sponsor* moduan jokatu dau. Tania Fernandez fisioterapeuteak be asko lagundu nau; gorputzak golpea hartu orduko asimiletan, prest egoten lagundu deusta kirol hau aurrera eroan ahal izateko. Fisikoki bakarrik ez, psikologikoki be bai. Izan be

arriskua dauka, berez istripua eukitea arraroa da baina jausi ezkerreko golpeak sano handiak dira. Horregaitik da garrantzitsua Taniaren laguntasuna.

**Ze proba dagoz?**

Euskal Herriko Ligea, Espainiako Txapelketea, Asturiaseko Ligea, Leongo Kopea, Federazinoko Kopea, Euskal *Downhill*, Europako Txapelketea, Mundukoa... Nire debuta aurten izan da, Federazinoko Kopako karre-rea egin neban. Bost lasterketa dira eta hirutan derrigor puntuau behar dozu. Nik hiru puntuaua daukadaz eta orain, hil honen 27an, finala daukat Puente de San Miguelen (Kantabria).

**Zenbateko distantzia eukiten dabe lasterketak?**

Normalean 2-3 kilometrotakoak izaten dira baina suertau daiteke kilometro batekoa izatea.

**Distantzia horretan zein da batz beste egiten dan denporea?**

Bi edo hiru kilometro 1'40" edo asko jota 2 minututan egiten dira.

**Hasi barria izan arren, zelan ikusten dozu zeure burua?**

Hasteko ondo. Ez dodaz denpora txarrak egin, ez da egon karrera bat atzenengo gelditu nazanik.

**Gogorra eta arriskutsua dala aitatu dozu. Estualdiren bat eukiko zenduan ba.**

Bildur gehien eteko lasterketetan pasau dot. Gemikakoa pasada bat izan zan, golpe ederra hartu neban, kaskoa be apurtu zan. Sarritan jausten zara, baina altzau eta aurrera segidu behar dozu. Pasetan dana da fidatuten bazara, sano arin bazoaz eta ibilbideak ondo egiten ez badozuz jausi egiten zarala. Abiadura nahiko handia da gainera, eta gorputzak lur-eraren edo zoezerren kontra jo leike.

**Alde onik?**

Duda barik. Berau praktiketeak dakarren adrenalinea, inertzia, munduko jentea ezetutea (mundialak dira!), sortuten dan giro ona, lekuak ezetutea...

**Zenbatekoa da hartu zeinkien gehienezko abiadura?**

Ez dakit nik zenbatekoa hartu dodan gehienez, baina badakit ehun kilometro orduko hartu leitekezala. 50-60 sikaner sano erreza da hartutea. Hortik aurrera bildurra emoten dau.

**Aldatz beheran abiadura handian zoazela zer daukazu buruan? Zer pentsetan dozu?**

Hurrengo trazaua edo bidea. Kurba bat hartuten zabizen orduan hurrengo zelan hartu pentsetan zabiz. Ezin da gauza lar pentsetan joan, segunduko milesimak dira eta.

**Zelan prestetan zara?**

Entrenamentuak? Laguntza profesional asko behar da. Konplikaua da, lasterketara joan behar zara, eta hantxe entrenetan dozu. Bestela debekatuta dago, ezin da ibilgailuentzako bideetatik ibili. Zoezergaitik da, eta errespetau egin behar da.

**Zelango ekipazioa daroazu?**

Norberaren gorputza. Ondo pre-parautea egon behar da, eta bestela babesgarriak. Buzo berezi batzuk dagoz. Nik motorreko fraka batzuk jantzen dodaz, belauetako ortopedikoak; goitik ezkutu bat daroat, osoko babesduna. Kasko integrala derrigorrezkoa da. Guztiz tapautu joan behar zara, asfaltoak erre egiten dau eta.

**Zein da zure helburua?**

Datorren urtean Frantziara joateko asmoa daukat. Lehenengo eta behin Pirinioetara. Hangoak lasterketa lu-zeak izaten dira, 6-9-12 kilometroko mendate nahiko garrantzitsuak. Momentu honetan entrenetan eta ikasten nabil bertara joateko. Bestalde, Arratian jaitsiera bat egiteko asmoa daukat.

**Eskualdean bakarria zarala esan geinke?**

Nik dakidala bai. Badago Basaurin Litus izeneko gizon bat, fenomeno bat. Hemen ez da asko praktiketan, gehien Frantziara eta Estadu Batuetan. Baina orain modan ipinten dabiz patinak. Jenteari animetako esango neuskio, ni lagunduteko prest nago. Facebook kontuan argazkiak eta bideoak daukadaz baten batek ikusi gura badauz. Ahaztu barik eskerrak emon gurako neuskie Mapi, Nekane eta bere familiari, Julen Agirreburualderi, Calixto Garcinari, trizikloan bajatuten diran kamikazeai, beste pilotu askori, nire familiari, The Mocker's Rock bandeari... euren babesagaitik; eta zuri, BEGITURI, interesagaitik. Egoitz Aranari be bai, berari esker baleiteke Zeanurin lasterketa bat eukitea eta, Azarieleri argazkiakaitik, eta zelan ez hasikeran aitatu dodazan Itxaso Elias eta Tania Fernandezeri, eurak barik ezin izango nintzalako bajatu.



# GALARZA

Funeraria - Ehorztetxea

[funerariagalarza.com](http://funerariagalarza.com)

**egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz**

■ Beilatokia
■ Errausketa-labea
■ Gorpuak eroan zein ekarri estadu barruan eta atzerrian

■ Lora-apaingarrien salmenta
■ Gestino administratiboa
■ Eskelak, doluminak eta esker onak online

- **Bulegoa**  
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao  
t. 944 570 395 (24 ordu)  
f. 944 575 043  
e. [info@funerariagalarza.com](mailto:info@funerariagalarza.com)
- **Dimako tanatorioa**  
Ziarrusta industrialdea, 39
- **Galdakaoko tanatorioa**  
Zabalea, 24

